



ONDARROAKO EMAKUMEEN UDAL BERDINTASUN KONTSEILUA

BILERA AGIRIA

| | |
|--------------|--------------------|
| Eguna | 2013ko apirilak 23 |
| Ordua | 19:00etan |
| Lekua | Udal batzar gela 1 |

BERTARATUAK

| | |
|---------------------------------|-------------------------------|
| Boga-Boga emakume elkarte | Karmen Lertxundi |
| ONE | Begoña Atxurra |
| | Jone Etxaburu |
| | Garbiñe Osa |
| Minbiziaren aurkako elkarte | Marije Ibarloza |
| Uxu-Ondarroako Emakumeen Taldea | Begoña Bengoetxea |
| | Rakel Aspiazu |
| 7 emakume en movimiento | Josune Laka |
| EAJ | M ^a Dolores Etxano |
| Kontseiluburua | Rakel Elu |
| Berdintasun Teknikaria | Rosa Baltar |

GAI ORDENA

1. Aurreko aktaren onarpena.
2. *ETXELILA emakumin topaleku*: jarduera batzordearen proposamenen azalpena eta adostasuna.
3. Eskari-galderak.

1. Aurreko aktaren onarpena.

Aho batez onartzen da.

2. *ETXELILA emakumin topaleku*: jarduera batzordearen proposamenen azalpena eta adostasuna.

Etxelilaren jarduera batzordearen lehenengo batzarra egin da eta batzar horretan proposatutakoa azaltzen da:



Bertaratuak: Ainara Aramaio (Allarte), Isaura Piñeiro eta Amaia Diz (ONE), Josune Laka (7 emakume en movimiento), Rakel Aspiazu (Uxu), Idoia Zengotitabengoa (Etxelila-dianmizatzalea) eta Rosa Baltar (berdintasun teknikaria)

- "Ahalduntze erretratuak: Palestinako emakumeekin elkartasunean" izeneko proiektua aurrera doa eta Ondarrutik Amaia Egañak parte hartuko du.
- Jabekuntza eskola: hiru ikastaro geratzen dira egiteke eta horiek apirila eta maiatza artean burutuko dira. Bestalde, jendaurrean berba egiteko teknikak ikastaroa maiatzaren 21ean bukatuko da eta Munduko emakumeen literatura ikastaroa maiatzaren 24an. Azkeneko kasu horretan ikasleen ekarpenak eta iritziak jasoko dira jarraipena baloratzeko asmoz.
Jabekuntza eskolarekin lotutako bestelako ekintza batzuk:
 - Logotipo lehiaketa
 - Ikasturte amaierako topaketa: ekainak 1. Aurten aniztasun sexualaren gaia landuko da eta horretarako Raquel (Lucas) Platero gonbidatu dugu.
- Emakumeen eskubideen gaineko tribunalen aurkezpena maiatzaren 22an, 19:00etan, izango da Etxelilan.
- Aurrera begirako proposamenak:
 - Pikara-aldizkari feministaren aurkezpena eta komunikazio estrategiei buruzko saio irekia.
 - Ondarruko gizon taldearekin elkarlanean Jokin Azpirekin hitzaldia antolatzea
 - Kafe tertuliak eta zinea gai ezberdinen gainean: honako hauek lehenesten dira: ekainaren 28aren inguruan filma, kafe tertulia hilekoaren gainean eta azkeneko udaldian herrian egindako pintaden gainekoa, abortatzeko eskubideari buruz (Uxu), eta elkarteetatik proposatzen diren bestelako gaiak.
 - Aurrerago eta irailetik aurrera Etxelilaren gaineko blog bat zabaltzeko aukera baloratzeko da.

Jarduera batzordean zein kontseiluan honakoak adosten dira:

- Maiatza-ekaina bitarteko egitaraua osatzen ahaleginduko gara, horretarako elkarteen proposamenak helaraziko dira Etxelilara.
- Aurreko proposamen guztiak lotzen hasiko gara.
- 2013/2014 jabekuntza eskolaren egitaraua osatzeko proposamenak lantzen hasiko gara.

Behin Etxelilako jarduera batzordearen gaiarekin bukatuta, Uxuk hitza hartzen du azaltzeko bere taldean luze berba egin dutela etxelila eta elkarteen arteko hitzarmenen gainean, eta ez daude ados hurrengo puntuarekin : *"Ondarroako Udalak ez du batere zerikusirik izango hirugarren batek jasan ditzakeen kalteengatik "7 emakume en movimiento" elkarteak jarduerak egin bitartean. Halaber, Ondarroako Udalak ez du batere lan-harremanik izango, ez eta beste era bateko loturarik, hitzarmen hau betetzen den bitartean; beraz, lokal horretan (edota elkarteak) burututako jardueren ondorioz ez du erantzukizunik izango, edozer gertatuta ere".*



Kontseiluburuak azaltzen du aseguruia izatea komeni dela, eta gainera, udalak ezin duela elkarte guztien aseguruaren kargu hartu. Uxuk azpimarratzen du bere taldeak ezin duela onartu hitzaldi bat antolatzeagatik erantzukizun guztia hartzea, taldeen denbora eta lana kontuan hartu beharko lukeela Udalak eta erraztasunak ematea.

7 Emakume en movimiento elkarteak galdetzen du ea hitzarmenen dinamika hori herriko beste lokaletan egiten ari den ala ez. Kontseiluburuak erantzuten dio kasu berdinak ez direla, eta hala eta guztiz ere, Udalaren joera hemendik aurrera hori izango dela, hitzarmenak sinatzea lokalen lagapenerako; izan ere, kasu berrietan horrela egiten ari da. Kontseiluburuak jarraitzen du esanez Udalak ahalegina egin duela Etxelila martxan jartzen, baita dinamizatzailearen kontratazioarekin ere, baina ezinezkoa egiten dela elkarte guztien aseguruia bere gain hartzea. Gainera argitzen du, eraikina bera aseguratu duela Udalak, baina Udalak ezin duela elkarteen jardueraren ondorioz sortutako kalteen ardura hartu edo elkarteen jardueraren ondorioz sortu litekeen kalte morala bere gain hartu.

7 emakume en movimiento elkarteak aurrerago baloratuko du aseguruia egitea ala ez, izan ere, elkarte honen jardura bereziak direla eta, aurrerago aseguruia izatea aztertzen ari direla diote, baina aldi berean elkarteen erantzukizuna argitzea eskatzen du.

Uxuk hitzarmena sinatu barik Etxelila erabiltzeko aukeragatik galdetzen du. Herriko beste edozein elkarte moduan erabiltzeko aukera dute. Etxelila erabiltzeko jarraibideen arabera, erabilera bi ezberdintzen ziren: puntuala eta jarraitua (hitzarmenarekin), beraz arazorik ez dago.

Eztabaida luze joaten da, eta, elkarte zein partaide guztiek alde baterako zein besterako zalantzak azaltzen dituzte gaiaren inguruan. Elkarte batzuetatik hitzarmenaren zati hori beste era batera jartzea eta, batez ere, argitzea eskatzen dute. Kontseiluburuak dio berriro aztertuko duela eta moldatzeko beste saiakera egingo duela, nahiz eta esanahiaren funtsezko aldaketa zaila izango den.

3. Eskari-galderak

- Ginekologia zerbitzuaren murrizketa: idatzi baten zirriborroa banatzen da. Elkarteetan gainbegiratuko da eta 10 eguneko epean hurrengo hauek helaraziko dira berdintasun sailera:
 - Testuari ekarpenak
 - Idatzia kontseilu moduan ala elkarteen izenak sinatzeko aukera aztertzea.
 - Prentsara bidaliz gero, pertsona fisiko baten izenean bidali behar denez, noren izenean bidaltzea proposatzen da?
- 7 emakume en movimiento elkarteak hurrengo jardueren berri ematen du:



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia



ONDARROAKO
EMAKUMEEN
UDAL BERDINTASUN
KONTSEILUA

- Ginekologia zerbitzuaren murrizketa dela eta, ekintza publiko bat egingo dutela (marasmi) eskualdeko emakume elkarteekin batera. Maiatzean egitea aurreikusten dute eta eskualdeko emakume elkarten partaidetza bideratzeko Lekeition, -ginekologia zerbitzuaren murrizketa dela eta-, egingo den batzarrean parte hartuko dute.
- Ekainean emakume presoen artelanen erakusketa egin nahi du elkarteak eta horrekin batera kartzela eta sormen artistikoaren gaineko hitzaldia.

Bilera 20:30ean bukatutzat ematen da eta hurrengoaren data zehazten da:
maiatzak 29, 19:00etan.

Ondarroan, 2013ko maiatzaren 15ean.

Izp.: Rosa Baltar Cabo.
Berdintasun Teknikaria